

ISILTASUNAREN SUERO BOTILAK

Maite Uriarte, 17 urte

Elgoibar

Kiringa honen soinekoa udazkeneko lanbroa dun,
eta beronen sabaia isiltasuna,
non bizi den ilargiaren badaezpadako agonia...

Biboli baldarraren nostalgia kantoietan bizi haiz,
harresi erpilean gauero,
minak dakien doitasunez
erreko dituen gogoan utzitako
ñikada bakoitza,
grina dardartiak.

Maitasuna ez baita plazer orroak ateratzea,
ez baita eternitatearen zoramenean
arrosa oparitzea...

Helburu urrun baten tintaketa dun,
gauaren haritan korapilatzea,
laztanki lo galduan,
amets iheskorretan.

Oihu isil bat, isiltasuna.

Badakin, guztiontzat zeukan heriotzak
begirada bat,
bakoitzarentzat bat.

Telefonoak urrundu gaitin azkenik,
musu agizko jadanik,
hitzak.

Zenbaki markatuak gaitun...
943-z hasitako egunerokotasuna...
“Zer moduz haurra?”
kafe hoztuak gure solasak,
armairuko eztei gaueko izara brodatuak.

Espazioan taupada den denbora
biziaren magian zintzilik,
ez zagon leiho
itsasoz beterik,
ezta erregularik ere gure arteko amargura
neur dezakeenik.

Bostehun kilometro asko ditun
hitz mingotsen poltsak oinutsik eramateko,
gehiegi ditun bostehun kilometro
hire irribarrearen oihartzuna
telefonoz izozteko.

Asko ditun bostehun armiarma
zorionaren sareak kurruskatzeko,
gehiegi ditun...

Zati itzan niri kontatutako bostehun gezurrak
ehun zenbakiaz,
baina bost bihotz pusketa gehiegi ditun.

Indartzan su hori,
esan gabeko hitzak, eskutitz sendagarriekin,

beiretako lurrunaren gainean idatzi
aurpegi, izen gabeko suizida erotuari.

Iziotu itzan arratseko ilunpean
ezinezko misterio, ilusio, amodioak...

Zaila dun paradisuari maitemin izatea, badakin.
Badakin! Joandakoa udazken dun beti.

Indartzan su hori...

Higuindurazko aterbean bildurik
gehinetan bakarrik bakardadean,
zirimolan galdurik,
denborari keinu bat eginez
isiltasuna seduzitu nahian,
baina kafe boztu bat baizik hartzen ez
etsipenezko besoetan.

Eta hitaz naun oroitzen,
zaila dun paradisuari maitemin izatea,
joandakoa udazken dun beti.

Udaberri baten zain,
agian inoiz helduko ez den
egunsentia...

Ametsak
ahituz zoazan,
isiltsunaren suero botilak,
ETENGABE